

Itsasoko herratuak.

Knidario izenak izendatzen dituen animaliak deskribatzen ditu aldi berean, *asuna* esan nahi baitu.

Ezerk ez du zartada zakar hori iragartzen; zeriantoaren garro bihurriek deskarga elektrikoak bidaltzen dituzte, janarizat hartuko dituzten ehizakiak paralizatzeko.

Hala ere, mehatxu larri baten aurrean polipo sesil hau substratora lotzen duen hodiaren barruan errefuxiatzen da. Hodia utz dezake, eta iristen den lekuan, beste bat sortu behar izango du.

Izan ere, knidario guztiek ez dute ziztatzten. Jatorri filogenetiko desberdineko animaliak daude talde honen barruan. Guztietan errepikatzen dena, zenbait ezaugarri morfologiko dira, eta nabarienetariko bat simetria erradiala da. Horrez gain, knidario asko polipoak dira, bizitzaren zikloaren zati batean, behintzat.

Garroak ere knidarioen ezaugarri ohikoen artean daude. Koral eta gorgonien kasuan, ia krabelin petaloak dirudite, baina polipoak itxirik dauden uneetan, koloniek bizigabeko harri itxura hartzen dute.

Baina, bat-batean, zabaldu eta itxi egiten dira, izartxo ñimiño distiratsuak bezala. Knidarioak, bizitza-lipar batean, eboluzioak idatzitako sinfonia interpretatzen eta urezko gitarraren hariak jotzen dituzten hatzak dira. Jango dituzten partikulek eta planktonak ere sinfonian parte hartzen dute.

Zortzi garro filiazio zehatz baten ezaugarria dira: oktakoralaroak, knidario antozooak; inoiz polipo izateari ez uztea euren nortasunaren parte da.

Knidario eszifozoook, aldiz, mugiezintasunari ihes egiten diote. Marmokek alderrai bizitza dute. Batzuetan, itsaslasterren mende, eta beste batzuetan, euren helmugaren jabe, hara doaz, unbrelaren gihar indartsuen mugimendu konbultsiodun baina zuzenek bultzaturik.

Aumala luminiszentea, kolore arrosakaraz jantzita dantzari xaloa bailitzan, bere garroen deskargak askatzeko gaitasuna disimulatzen du. Garroetako knidoblastoek, beste edozein organismo ukitzean aktibatuak, gai erremingarriez kargatutako gezia jaurtitzen dute. Erasoa abiarazi duen animalia txikia bada, paralizatua geratuko da, eta marmokak ehizatu egingo du; handia izanez gero, defentsa mekanismoa da harrapari baten aurrean, eta horrela, beharbada, ihes egiteko astia irabaz dezake marmokak.

Deskarga elektrikoak bidaltzeko gaitasunak *aguamalas* eta *malaguas* ezizenak ekarri dizkio marmoka honi. Beste zenbaitek *aguavivas* edo *lágrimas de mar*, itsas malko izena ematen diote.

Agian, malkoak dira animalia horiekin antz gehien dutenak, marmoken %95a ura baita; eta nahiz eta hain sinpleak izan, forma eta kolore anitzak sortzen dituzte, batzuetan goxoak, besteetan, garratzak.

Garroetan korapilaturik igeri egiten duten arrainek hondarrak garbitzen dituzte etengabe; honen truke, segurtasunez bidaiatzen dute, marmokaren dardara zakarren artean. Marmoka, ia guztiz urezkoa izan arren, sendoa eta armatua.

"Hotzikaraz betea da itsasoa" idatzi du Gómez de la Serna-k; marmoka bati begira egongo zen orduan.

Baina dantza ederretan pentsarazten digute mugimendu erritmikoez, unbrelaren jirabira leunek. Hala ere, ez diogu sentipen horri eusten, gizakiok gurea dela uste dugun hondartzan marmoka talde handiak agertzen direnean.

Marmokak, besteren borondateaz arduratu gabe, itsasoan zehar dabilta noraezean, osagarri nagusi duten material bertan. Ur eta gatzik gabe, atzamar artean irristatzen den gelatina dira, lurrundu egiten dira. Baina uretan egon bitartean, alderrai ibiliko dira, dardarati, etereo eta erremingarri. Horrelakoak dira malkoak itsasoz eginak badira.